



PROIEKTUAREN FITXA			
PROIEKTUAREN AKRONIMOA:		LIFE22-CET-Plan4CET	
PROIEKTUAREN IZENBURUA:		Plan4CET: Improving Clean Energy Transition planning at local and regional level	
PROIEKTUA FINANTZATZEN DUEN PROGRAMA:		LIFE (LIFE (europa.eu))	
IRAUPENA (Hasiera-data - amaiera-data):		2023/9/1 - 2026/2/28	
IRUÑEKO UDALAREN EGINKIZUNA (liderra, kidea, bazkidea):		Kidea	
KIDEAK			
1.-NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA - NAFARROAKO GOBERNUA (NAFARROAKO FK)		7. PROVINCIA DI PARMA (Parmako probintzia)	
2. NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA SA (NASUVINSA)		8. AGENZIA PER L'ENERGIA E LO SVILUPPO SOSTENIBILE ASSOCIAZIONE (AESS)	
3. IRUÑEKO UDALA (IRUÑA)		9. AGENZIA TERRITORIALE PER L'ENERGIAE LA SOSTENIBILITA DI PARMA (ATES PARMA)	
4. ZABALA INNOVATION CONSULTING SA (ZABALA)		10. ACCADEMIA EUROPEA DI BOLZANO (Eurac Research)	
5. ENERGIKONTOR SYDOST AB (ESS)		11. FEDERATION EUROPEENNE DES AGENCES ET DES REGIONS POUR L'ENERGIE ET L'ENVIRONNEMENT (FEDARENE)	
6. COMUNE DI PARMA (COMUNE DI PARMA)			
AURREKONTUA ETA FINANTZAKETA			
	Aurrekontua, guztira	Finantzaketa (EB) (€)	Finantzaketaren % (EB)
IRUÑEKO UDALA	94.962,5	90.214,38	% 95
NAFARROAKO KIDEAK, GUZTIRA	660.382,75	627.363,61	% 95
PROIEKTUA, GUZTIRA	1.576.029,75	1.497.228,28	% 95
HELBURU OROKORRA			
PLAN4CET proiektuaren helburu orokorra Europako eskualde eta hiriei laguntzea da, beren behar eta aukeren arabera energia garbi bateranzko trantsizio-planak diseinatu, garatu eta aplika ditzaten. Horretarako, proiektua hainbat produktu (metodologiak, tresnak eta laguntza teknikoak) sortuko dituen ekimen gisa sortu da, EBko eskualdeei (bereziki, gaitasun falta duten udalerrri ertain eta txikiei) eta hiriei CET - Energia Trantsizio Garbiaren plangintzan laguntzeko. Proiektuak zuzenean lagunduko die EBko 3 eskualderi Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Planak hobetzen Nafarroan, Skånen (Suedia) eta Emilia Romagnan (Italia) eginen diren proiektu pilotuetan. Eskualde horiek EBko hainbat eskualde mota irudikatzen dituzte, eta eredu izanen dira ikaskuntza eta praktika onenak transferitzeko.			
EKINTZA NAGUSIAK NAFARROAN			
Proiektuan trebakuntza-ekintzak eginen dira parte hartzen duten eskualde eta kide guztiendako. Aldi berean, eskualde bakoitzak energia trantsizio garbirako (CET, ingelesezko siglen arabera) pilotua ezarriko du.			



Nafarroan eginen diren jarduketa nagusiak honako hauek izanen dira:

- 2030eko eta 2050eko Nafarroako Energia Trantsizio Garbirako Estrategiaren garapena
- Nafarroako energia-trantsizio jasangarriko gobernantza (antolaketa eta langileen prestaketa)
- Udalerriei eta Nafarroako energia-trantsizioko prozedurei laguntzea
- Herritarrek, industria, tokiko gobernu eta organo politikoak engaiatzea, bai eta Energia Trantsizio Garbian interesa duten beste alde batzuk ere, Energia Trantsizio Garbian garrantzitsuak direnak: Sentsibilizazio-, komunikazio- eta hedapen-ekintzak.

EMAITZAK IRUÑEAN

Proiektu horrek Iruñeko Udaleko Klima-aldaketako eta Energia-trantsizioko Estrategia ezartzen lagunduko du.

WEBGUNEA ETA SARE SOZIALAK



PLAN4CET



Co-funded by
the European Union